


INDARKERI BIRALA




Save the Children
100 URTE



Ingurune digitalean hurrek eta nerabeek
sufritzen duten indarkeriaren azterketa





Txosten hau bi proiektutan oinarritu da. Lehenik, Bartzelonako Unibertsitateko Haurren eta Nerabeen Biktimizazioko Ikerketa Taldeak (GReVIA) egindako txostenean. Bestalde, Soluciones Netquest de Investigación, S.L.U. enpresak sareko inkesta bidez egindako azterketa kuantitatiboan.

Esker onez::

Modu batean zein bestean, txosten hau egiten lagundu duten pertsoneri. Haurtzarolari eta Sentiberatzeari buruzko Politiken taldea osatzen duen pertsona bakoitzari, eskainitako laguntzarengatik eta taldean jarri duzuen konfiantzagatik. Carmela del Morali bereziki, proiektu honetan modu bikainean eta pazientzia handiz gidatzeagatik; eta Gabriela Jorquerari, laginei, ordezkariari, haztapenei eta estatistikei buruzko ezagutzak partekatzeko erabateko prestasunagatik.

Zuzendaria:

Ana Sastre, Haurtzarolari eta Sentiberatzeari buruzko Politiken zuzendaria

Koordinatzailea:

**Carmela del Moral
Cristina Sanjuán**

Egilea:

Cristina Sanjuán

“Adingabeen biktimizazioa sare sozialen bitartez” aurretiazko ikerketaren egileak:

**Noemí Pereda (Dirección)
Marina Bartolomé
Irene Montiel
Ana M. Greco
Jaume Hombrado**

Argazkiak:

**Pablo Blázquez /Save the Children
Ferran Martí /Save the Children (p. 43, 50)**

Infografiak:

Germán Gullón (Valbhy Design)

Gráficos:

Pablo Cabrera

Maketazioa:

Óscar Naranjo

Edita:

**Save the Children Espainia
2019ko apirila**

Depósito legal:

M-22786-2019



EDUKIA

1. ZERGATIK IDATZI DUGU TXOSTEN HAU?	7
2. ZER DA ONLINE INDARKERIA?	9
3. ZER INDARKERIA MOTA DAUDE ONLINE?	11
4. NOLA ERLAZIONATZEN DIRA INDARKERIA MODUAK?	25
5. INDARKERIA MOTA GUZTIAK DELITU DIRA?	29
6. BADAGO BIKTIMEN ETA ERASOTZAILEEN PROFILIK?	33
7. ZER ONDORIO ETA ERAGIN DITU?	39
8. ZENBATERAINOKO LARRITASUNA DU ARAZO HONEK ESPAINIAN?	45
9. ZER NEURRI HARTU DIRA GURE HERRIALDEAN ONLINE INDARKERIAREN AURKA?	69
10. ZER IKASI DUGU?	71
11. ZER EGIN DEZAKEGU ORAIN?	73
a. Gomendio orokorrak	73
b. Haur eta nerabeentzako gomendioak	75
c. Familientzako gomendioak	76
d. Profesionalentzako gomendioak	78
e. Gizartearentzako gomendioak	82
Oharrak	84
Bibliografia	90



1. ZERGATIK IDATZI DUGU TXOSTEN HAU?

Gaur egun, ez dugu ulertzen mundua teknologiarik eta Internetik gabe.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (aurrerantzean, IKTak) gure bizitzetako zati dira, eta, poliki-poliki, mundu fisikoa eta birtuala banatzen dituen lerroa desagertuz doa. Haurren kasuan, gero eta lehenago hasten dira erabiltzen, 7 urte ingururekin.¹

Helduok Internetera jotzen badugu etengabe, nola eskatuko diegu haurrei eta nerabeei gauza bera ez egiteko? Sarearekin hazten dira eta sarearekin ikasten dute; garatzeko eta sozializatzeko beste modu bat da. Teknologiek mundu fisikoan beti presente ez dauden aukerak eskaintzen dituzte, hala nola berehala erantzuteko aukera edo informazioa edo munduko beste edozein tokitara klik bakar batean sartzeko aukera.

IKTen onurak ugariak dira; hala ere, dituen arriskuez kontziente izan behar dugu, eta modu seguru eta arduratsuan erabili behar ditugu. **Internet erabiltzeko orduan arretaz jokatzeko erakutsiko dien hezkuntzaren bidez, egoera arriskutsuak saihestu ditzakegu**, egoera horiek hauteman egin ditzakegu, eta indarkeria ekar dezaketen egoeren aurrean joka dezakegu.

Adingabearen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoaren arabera, indarkeriaren definizioaren barnean sartzen da “teknologia berrien bidez eginkoa”. Hala, bada, entitate berezia duen indarkeria mota bat da, berez existitzen dena eta ez dagoena beste indarkerien mende gertatzeko.

Hala ere, indarkeria honek badu larritasun berezi bat; izan ere, askotan, **ez da mundu fisikoan gertatzen den indarkeriatik**

bereizten (*offline* indarkeria), eta hainbat indarkeria mota gerta daitezke aldi berean edo elkarren segidan, *online* nahiz *offline*.

Haurrak eta nerabeak indarkeria mota horien biktima ere izan daitezke, eta kopuru kezkagarrietara iristen ari da. Barne Ministerioaren azken datuen arabera –“Espainiako ziberkriminalitateari buruzko azterketa”–, **adingabeen kontrako delitu zibernetikoekin lotutako 2.286 salaketa aurkeztu ziren 2017an**. Haurrak eta nerabeak zaurgarriagoak dira, eta ez dituzte helduok ditugun mekanismoak indarkeriari aurre egiteko.

Haurrak ahaldundu behar ditugu, hezkuntza positiboa eta aurreiritzirik gabekoa eskainiz eta Internet nola erabili behar duten erakutsiz, askatasunez erabil dezaten.

Bestalde, indarkeria elektronikoa oso gutxi aztertu da Espainian, haurren kontrako indarkeriaren arloaren barnean. Hala ere, orain arteko ikerketak erabil ditzakegu gertaera horietara hurbiltzeko eta halakoak aztertzeko eta azaltzeko.

Txosten honetan, haurrek teknologia eta gailu elektronikoak erabiltzerakoan aurre egin beharko dieten sareko indarkeria motak landuko ditugu. Halaber, arazoari bere osotasunean helduko diogu, eta egon daitezkeen arrisku-faktoreak eta indarkeria hori jasatearen ondorioak aztertuko ditugu; azkenik, gazteei, familiei eta profesionaleri zuzendutako gomendioak egingo ditugu, haurren kontrako indarkeriaren aurkako borrokan guztiok bat egin dezagun.

Haur eta nerabeen galderei eta premiei erantzuten hasi behar dugu, mezezi duten babesa izan dezaten.



2. ZER DA ONLINE INDARKERIA?

Txosten honetan azaltzen dugun analisiak garapenaren biktimologia deritzona hartzen du erreferentziatzat². Ikuspegi horretatik, hurrek eta nerabeek haurtzaroan eta nerabezaroan jasan ditzaketen indarkeria motak aztertzen dira. Delitu izan daitezkeen indarkeriazko jokabideak nahiz delitu ez direnak hartzen ditu barnean.

Garapenaren biktimologiak, aiten, amen edo arduradunen aldetik gertatzen diren haurren tratu txarrak islatzeaz gain, beste indarkeria modu batzuk ere islatu nahi ditu: parekoen arteko indarkeria, indarkeria sexuala ukitze fisikoarekin edo gabe, biktimizazio elektronikoa, etab.

Hala, azterketa zatikatua eta independentea saihestuko dugu³; izan ere, aurrerago ikusiko dugunez, indarkeriazko egoerak aldi berean edo elkarren ondoan gerta daitezke, edo gainjarri ere egin daitezke⁴. **Edozein indarkeria mota jasaten duten haurrek eta nerabeek indarkeria mota bat baino gehiago pairatzen dute aldi berean edo bizitzan zehar.**

Indarkeria motak elkarri lotuta daudela onartzeak errealitatetik hurbilago dagoen ikuspegia eraikitzeko aukera emango digu, azterketa enpirikoek eskainitako ebidentzietan oinarrituta; azterketa enpiriko horiei indarkeria-sare (web of violence)⁵ deritze.

Indarkeriarako hurbilketa honek analisia hobetuko du, etorkizunean aurrea hartzeko eta esku hartzeko estrategiak diseinatu ahal izateko, bai eta ebaluaziorako eta jarraipenerako tresna osatuagoak eta eraginkorragoak prestatu ahal izateko ere.

Sareetako indarkeria IKTen eguneroko erabileraren testuinguruan definituko da; hala ere, ezin ditugu alde batera utzi mundu birtualaren barneko nahiz kanpoko aurretiazko, aldi bereko edo ondorengo biktimizazioak.

Save the Children erakundeko kideok agerian utzi nahi dugu online indarkeriaren errealitate konplexua, mundu fisikoko indarkeriatik ihes egiten ez duena edo harekin lotuta dagoena, eta ikusarazi nahi dugu sareko biktima diren haur zein gazteak saretik kanpoko biktima ere izan daitezkeela⁶, eta baita alderantziz ere.





3. ZER INDARKERIA MOTA DAUDE ONLINE?

Haurrek eta nerabeek eguneroko bizitzan Internet erabiltzean jasan ditzaketen eta haien garapenari gehien eragiten dieten indarkeria modu nagusiak identifikatu dugu.

Beste indarkeria modu batzuk existitzen diren arren, hala nola haurren aurkako sexu-abusuen irudiak ekoizteko edota hedatzeko delitua (haur-pornografia), edo adingabeen ustelkeriarekin lotutako beste batzuk, ez ditugu sakon aztertuko. Ez ditugu aztertuko ezta ere oso gai larriak, hala nola adingabeen trafikoa, sexu-esplotazioa, pedofilia- edo pederastia-sareak, etab.

Gai horiek guztiak oso garrantzitsuak diren arren, ez dagozkio txosten honen ikuspegiari. Berritoki ere, haurrek eta nerabeek haien harremanetarako Internet erabiltzean jasan dezaketen indarkerian jarri nahi dugu arreta.

Bestalde, biktimizazio guztiak garatzen diren testuingurua kontuan hartuta, bilakaera izan dezakete eta aldatu egin daitezke, IKTek

egiten duten bezalaxe. Beraz, beharbada etorkizunean “katalogo” hau eguneratu eta osatu egin beharko da.

Pornografia edo haurren kontrako sexu-abusuen irudiak

Save the Childrenen uste dugu “haur-pornografia” terminoa ez daterrela bat deskribatzen duen indarkeriarekin, eta irudietan edo bideoetan jasotako sexu-abusuak direla.

Pornografia pertsona helduen material sexuala da, hedatzeko eta kontsumitzeko grabatutakoa, bertan parte hartzen dutenen baimenarekin. Adingabeen kasuan, haurren sexu-abusua izango da beti, grabatuta egon ala ez. Hala ere, irakurketa errazteko, “haur-pornografia” gisa tipifikatutako delituari dagozkion adierazpena erabiliko dugu.

a. Baimendu gabeko sextinga

Martak 13 urte ditu, eta oso polita ikusten du bere burua gaur; horregatik, bere buruari argazki batzuk egitea erabaki du, azpiko arropekin jantzita eta amaren ispiluaren aurrean, sare sozialetan jarraitzen dituen influencer askok egiten dutenaren ildotik. Hainbat argazki egin ondoren, jabetu da ezin dituela Internetera igo, bere amak profila kontrolatzen diolako, eta, horregatik, ikaskide batzuei Whatsappez bidaltzea erabaki du. Ordu batzuen buruan, ikaskide baten aitak Martaren aitari deitu dio, eta alabak zer egin duen kontatu dio. Alaba kontrolatzeko esan dio, edo bestela polizia deituko diola, berriro material pornografikoa bidaltzen badio.⁷

Sexting terminoa sex (sexua) eta texting (mezu-bidalketa) hitzen kontrakzioa da, eta sexu-educia duten mezuen edo online materialen trukea izendatzeko erabiltzen da. Yvonne Roberts kazetariak erabili zuen ter-

mino hori lehen aldiz 2005. urtean, Sunday Telegraph egunkarian, pertsona helduen arteko desleialtasun-kasu batean pertsona horietako batek material sexuala bidali baitzuen amorantei.⁸

Honela definitzen da: “nerabeen arteko jokabideak edo ohiturak, adingabeak biluzik edo erdi biluzik agertzen diren edozein irudi digital sortzea eta, bai sakelako telefonoen bidez bai mezu elektronikoen bidez, beste adingabe batzuei igortzea edo Interneten hirugarrenen esku jartzea dutena helburu”⁹. Norberaren argazkiak izan daitezke, jarrera probokatzaileetan edo biluzik; edo sexu-harremanen uneko argazkiak edo bideoak izan daitezke, beste pertsona batzuei bidaltzen zaizkienak.

Nerabeek ohitura hori gehitu diote euren erlazionatzeko moduari, baina ez dira jabetzen **sextinga arrisku handiko jarrera dela. Zoritxarrez, mezua bidaltzen den unean bertan, bidaltzailearen kontrolpetik ihes egiten du.**

Eduki hori beste pertsona batzuekin partekatu edo hedatu daiteke, egileak jakin gabe. **Baimenik gabeko sextinga indarkeria modu bat da, biktimak ez baitu eduki hori hedatzeko baimenik ematen.** Horrela, beste indarkeria modu batzuk eragiten ditu, ziberjazarpena edo haur-pornografiaren hedapena, adibidez, eta azken hori adingabeen kontrako *online* abusuak egiten dituzten pertsonen esku dagoen sare batean parteka daiteke.

Azken aldian, bada baimenik gabeko *sexting* gisa kalifika daitekeen beste fenomeno bat, “mendekuzko pornografia”¹⁰ deritzona: irudi intimoak hedatzen dira, bikotekide ohiarenak normalean, hura kaltetzeko eta publikoki umiliatzeko. Indarkeria moduak aldi berean gertatzen direla adierazten duen adibide argia da: indarkeria bikotekidearekin edo bikotekide ohiarekin, baimenik gabeko *sextinga* (sexu-elementuak baldin baditu) eta ziberjazarpena.

Adi! Sextinga ez da indarkeria modu bat berez, baina arrisku handia dakar berarekin. Nerabeen artean hedatu den ohitura berri bat da, bereziki bikotekideen artekoa; sexu-harremanak izateko modu bat, non bi aldeek sexu-edukia duten irudiak edo mezuak trukatzeko onartzen duten. Espainian, 18 urtetik 20 urtera arteko pertsonen % 20k parte hartu du inoiz sextingean, eta, besteak beste, 15 eta 16 urteren artean egiten dute lehen aldiz.¹¹

Sexu-onespena

Sexu-onespena Espainian 16 urtean zehaztuta dago (Kode Penalaren 183. art.), eta, beraz, adin horretatik beherako pertsona batekin izandako sexu-harreman oro haurren kontrako sexu-abusutzat hartuko da. 16 urtetik 18 urtera bitarteko etapen, “onespen akastuna” egiaztatu beharko litzateke, hau da, biktimak onespena eman arren, hori ez da baliozkoa izango engainua, manipulazioa eta antzekoak gertatzen badira. Gauza bera gerta daiteke *online grooming* kasuetan ere.

Adingabeen artean, Kode Penalaren 183. artikularen arabera, ez da delitirik izango 16 urtetik beherako adingabeak harremanak libreki onartu baditu, eta beste pertsonaren adina eta garapena edo heldutasuna antzekoak badira.

b. Sextortsioa

Pablok 13 urte ditu, eta Internet erabiltzen du bere interes berberak dituen jendea ezagutzeko. Egun batean, gogokoen duen bideo-jokoaren foro batean, bere adina duela esaten duen neska bat ezagutu du, eta telefono-zenbakia trukatzeari proposatu dio hark. Pablo eta neska mezuak trukatzeko hasiko dira, eta gero eta gehiago gustatuko zaio. Egun batean, neskek biluzik agertzen den argazki bat bidaltzeko eskatuko dio, eta Pablok bidali egingo dio, gustura sentitu delako. Aurrerago, bideo bat bidaltzeko eskatuko dio neskek, masturbatzen, eta bidali egingo dio. Hurrengo batean, dirua uzteko eskatuko dio neskek. Pablok ez du aurrezirik, eta ezin diola dirurik utzi esango dio; orduan, neskek mehatxu egingo dio, eta, dirua eman ezean, argazkia eta bideoa lagunen eta senideen artean zabalduko dituela esango dio.

Sextortsio terminoa **sexu eta estortsio** hitzen kontrakzioa da. Izenak adierazten duenez, sexu-edukiak dituzten ikus-entzuzkoak edo informazio sexuala argitaratzeko xantaia edo mehatxua da; kasu honetan, haur edo nerabe batenak. Beraz, **xantaiaren sareko dimentsioan sartzen da, eta orduak, hilabeteak edo urteak iraun ditzake**; biktimak ezagutzen duen pertsona batek edo ezezagun batek egin diezaioket xantaia.

Gainera, xantaia pairatzen duen pertsonak gehienetan ez du laguntza eskatuko, lotsatuta edo errudun sentitzen delako, edo material intimo hori zabaltzeko beldur delako. Kasu gehienetan, haurra beldur da, bere senitartekoen eta adiskideen inguruak material sexuala partekatu duela jakingo duelako.¹²

Ezaugarriei dagokienez, funtsezko lau elementu daude sextortsioan, definizio oso bat zehazten laguntzen dutenak:¹³

1. Materiala:

Xantaiaren helburua eduki intimoa da, eta esplizitua edo deserosoa izaten da, eduki sexuala izan ohi du, eta biktimak ezkutuan gorde nahi izaten du.

Biktimak berak bere borondatez partekatutako edukia izan daiteke, edo *sextingaren* bidez edo engainu bidez partekatua izan daiteke.¹⁴

2. Mehatxua:

Elementu hau erabakigarria da *sextortsiorako*. Biktimak saihestu nahi duen agertokia da (materiala zabaltzea, normalean), eta bere helburua lortzeko xantaia egiten duenak erabiltzen du.

3. Balioa:

Haur edo nerabearengandik lortu nahi dena da. Dirua lortzea, material gehiago eskuratzeko edo biktimak zerbait egitea izan daitezke helburuak. Baimenik gabeko *sextingarekin* alderatuta, *sextortsioaren* barnean elementu hau sartzen da nahitaez. .

4. Internet:

Internet izango da estortsioa gauzatzeko bidea, eta sare sozialen bidez, webguneen bidez, txaten bidez, berehalako mezularitza-zerbitzuen bidez edo antzekoen bidez gertatuko da.

Indarkeria elektronikoa egiteko modu desberdinen arteko erlazioa erakusten du sektorsioak. Biktimak eduki hori bikotekideari edo bikotekide ohiari bere borondatez bidali bazion ere, bikotekide horrek xantaia egin

diezaioke material horrekin;^{15 16} edo biktimaren irudi pertsonalak dituen ikastetxeko kide batek erabil ditzake irudi horiek;¹⁷ edo Internet bidez ezagutu duen eta etengabeko komunikazioa duen pertsona heldu batek.¹⁸

c. *Online* indarkeria bikotearen barnean edo bikotekide ohiarekin

Anak eta Xabierrek 16 urte dituzte, eta elkarrekin ibili dira sei hilabetez. Duela gutxi, Anak harreman hori apurtzea erabaki du. Xabierrek Anak berarekin jarraitzea nahi du, eta bere buruaz beste egitearekin mehatxatzen du. Mezuak igortzen dizkio sakelakoaren bidez, honelakoak esanez: “min eman dionez, berak ere min emango dio”. Gainera, elkarrekin zeudenean Anak eman zizkion pasahitzak erabiltzen hasi da, haren elkarrizketa pribatuak espialtzeko sare sozialetan, eta askotan iraintzen du telefono-txat batean.

IKTak adingabeen arteko maitasun-harremanetan erlazionatzeko eta komunikatzeko baliabide gisa erabiltzen dira baita ere, eta, beraz, bikote-harremanetako indarkeria transmititzeko kanal gisa (edo harreman hori amaitu ondoren). Arlo horrek gero eta garrantzi handiagoa du maila sozialean, politikoan eta akademikoan, eta gero eta ikerketa gehiago egiten ari dira arrazoiak, dimentsioa eta ondorioak aztertzeko, bai eta sentiberatzeko eta aurrea hartzeko gero eta kanpaina gehiago ere.¹⁹

Indarkeria hori **bikotekidea edo bikotekide ohi kontrolatzeko edo hari kalte egiteko jokabide errepikakorren** multzo gisa definitzen da,²⁰ peta, ziurrenik, mundu fisikoan indarkeria jasaten edo eragiten duen mundu birtualean ere jasango edo eragingo du.^{21 22 23 24} IKTak indarkeria hori gertatzeko bidea izango dira (bideratzaileak), edo “eragileak” izango dira. Horren adibide argi bat Interneten bere bikotekidearen argazki bat edo iruzkin bat ikustean jelskor

jartzen den eta horren ondorioz eraso fisiko bat edo ahozko eraso bat egiten duen pertsonarena litzateke.²⁵

Honela gauzatzen da: mezuak trukatu, **sare sozialak edo webguneak kontrolatu, pasahitzak eskuratu, sekretuak edo informazio pertsonala zabalduz**, edo mehatxuen eta irainen bidez.²⁶ Bikotekidea kontrolatzeko, **haren kokapena kontrola daiteke, bai eta elkarrizketak eta sareko iruzkinak ere, mezu edo iruzkin iraingarriak, zakarrak eta apalgarriak bidal daitezke**, edo asmo bereko argazkiak argitara daitezke.²⁷

Kasu honetan, indarkeriaren beste modu batzuk ere gurutzatzen dira, hala nola *sektorsioa*, ziberjazarpena edo baimenik gabeko *sextinga*.

Nerabeen arteko indarkeria mota honen **arrisku erantsia** jokabide horiek justifikatzen direnean, ondorioei garrantzia kentzen zaienean edo gutxietsi egiten direnean gertatzen da;²⁸ zenbaitetan, **maitasun-adiera-**

zpenekin nahasten dira. Esate baterako, jeloskortasuna maitasun-adierazpena dela pentsatu ohi da, edo pertsona batekin ego-teak pertsona hori kontrolatzeko eskubidea ematen duela.²⁹

Hala, bada, **indarkeria hori oso garrantzitsua da bizitzako etapa honetan,** lehenengo maitasun- eta sexu-harremanak gertatzen baitira garai horretan, eta heldua-roko harremanen oinarriak ezartzen baitira. Horregatik, **haur eta nerabeek jokabide osasuntsuak ikasi behar dituzte, desorekarik eta genero-roliek gabeak,** eta indarkeriazko jokabideak identifikatu behar dituzte, horiek normalizatu gabe.

Gaztetatik harreman-eredu osasuntsuak eta elkarrenganako errespetuan oinarritutakoak ikastea bikotean indarkeriari aurrea hartzeko modu bat da, bereziki genero-indarkeriari aurrea hartzeko modu bat.

Genero-indarkeria Interneten

*Bikotearen barneko indarkeria genero-indarkerian oinarritzen da, eta, beraz, bikotearen barneko indarkeria edo bikotekide ohiaren aurkako indarkeria aztertzen dugunean, indarkeria mota horretaz hitz egin behar dugu, bai helduen artean, bai adingabeen artean. Indarkeria hori ukatzen, normalizatzen edo justifikatzen badugu, ez da desgertuko, areagotu baizik. Gure gizartean gertatzen da, bai eta Interneten ere: **bikotearen barneko indarkeria genero-indarkeriaren adierazpen birtuala da, ez da mundu fisikora mugatzen.***

Zoritxarrez, ez dira nahikoa datu jaso online indarkeria mota hori zorrotasunez aztertzeko. Horregatik, arlo horretan ikerlanak eta datu-azterketa egiteko beharra dagoela adierazi nahi dugu. Badirudi logikoa dela pentsatzea, garapenaren biktimologiaren marko teorikoari jarraiki, sareko eta saretik kanpoko genero-indarkeria lotuta daudela.

Haur eta nerabeei lagundu nahi badiegu, teknologiak maitasun-harremanetan eta genero-desorekan jokatzen duen zeregin garrantzitsua aztertu behar dugu.

d. Ziberjazarpena edo *cyberbullyinga*

Markosek 13 urte ditu, gehiegizko pisua du, eta Bigarren Hezkuntza hasi berri du ikastetxe berri batean. Egun batean, Gorputz Hezkuntzako eskolan, bere taldeko neska batek lurrera erortzeko unean grabatu dio, eta burla egin dio. Hurrengo egunean, ikaskide guztiek bideo hori beren sakelako telefonoetan dute, eta gauzak esaten dizkiote korridorean. Etxera iritsitakoan, bideoa sare sozial batera igo dutela ikusi du, eta ezezagunen mezu apalgarri eta iraingarriak jasotzen hasten da. Egun horretatik aurrera, Markosek testu-mezu umiliagarriak jasotzen ditu etengabe. Bideoa birala egin da ikastetxeko ikasleen artean, baina beste ikastetxe batzuetako gazteak ere hasi dira bideoan iruzkinak egiten eta Markosi barre egiten.

Ziberjazarpena definitzeko, jazarpen “tradizionalaren” kontzeptuarekin lotu behar dugu, fenomeno beraren hedapena baita.³⁰ Ni horretara ez naiz jolasten,³¹ txostenean azaldu genuenaren ildo beretik, *cyberbullyinga* jazarpen mota bat da, bereziki larria, dituen ezaugarriak kontuan hartuta.

Parekoen arteko indarkeria da, eta **biktima bat zirikatzean datza**, mezuen, irudien, bideoen edo iruzkinen bidez, hura kaltetzeko, iraintzeko, umiliatzeko edo difamatzeko asmoz. Jazarpenean ez bezala, ez dago aurrez aurreko harremanik, eta **gehiago irauten du, edukiaren hedapenaren eta biralizazioaren ondorioz**³² eduki horren gaineko kontrola galtzen baita.

Jazarpenaren eta ziberjazarpenaren arteko lotura zuzena da. Ziberjazarpena jasatea edo egitea jazarpen tradizionalako inplikazioarekin lotuta dago,³³ eta jazarpena jasaten edo egiten duenak probabilitate handia du mundu birtualean hori errepikatzeke.³⁴

Bullyinga ikastetxeetan gertatzen da nagusiki,³⁵ eeta *cyberbullyinga*, berriz, eremu horretatik harago gertatzen da, eta **eskola desberdinetako adingabeen artean edo eskola-orduetatik kanpo gerta daiteke**, eta denboran mugarik gabe luza

daiteke. Edukia digitalki argitaratu ondoren, mugarik gabe ikus eta birbidal daiteke. Hala, edukien biralizazioaren ondorioz, jazarpena elkar ezagutzen ez duten haurren artean gerta daiteke, sareko iruzkinen eta irainen bidez.^{36 37 38 39}

Teknologiak kanal gisa edukita, jazarpena egiten duenak hainbat aukera ditu eskura kaltea eragiteko. Eskuragarri dauden sare sozial guztiak, berehalako mezularitzako aplikazioak (bigarren pertsonen edukiak parteka ditzakete), sareko txatak, mezu elektronikoak, etab. erabil ditzake.^{40 41 42}

Beste indarkeria mota batzuekiko harremanari dagokionez, *cyberbullyingaren* kasuan, edukia argitaratu aurretik biktimari xantaia egin dakioke: biktimak xantaiaren aurrean amore ematen ez badu eta materiala argitaratzen bada, *cyberbullyinga* aurretiazko indarkeria baten ondorioa litzateke.⁴³

Cyberbullyinga egiteko orduan biktimaren sexu-izaerako materiala erabiltzen bada, haur-pornografiaren hedapenera eraman gaitzakeen kasu baten aurrean egongo ginateke.⁴⁴

e. Happy slappinga

Ainak 15 urte ditu, eta ez ditu lagun asko egin ikastetxean. Bere gelako neska bat, Paula, irainka ari zaio beti, eta ez dio bakean uzten. Egun batean, Ainak aurre egin zion, eta Paula ostikoka hasi zitzaion, Aina lurrera bota arte. Une horretan, beste neska bat ere joka hasi zitzaion, eta inguratu egin zuten guztien artean. Eraso ikusten ari zen pertsona batek eraso grabatu egin zuen, eta oso ezaguna den sare sozial batera igo zuen. Handik bi egunetara, bideoak 2.000 bisita izan zituen.

*Happy slappinga (belarrondoko zoriontsua, euskaraz) Erresuma Batuan sortutako terminoa da, eta mundu osora zabaldu da azken urteetan. **Pertsona baten aurkako eraso fisiko bat, ahozko eraso bat edo eraso sexual bat grabatzean datzan indarkeria da, eta bideo hori komunikazioaren teknologien bitartez hedatzen da gero. Webgune batean, sare sozial batean, sakelako telefonoaren bidezko elkarrizketa batean edo antzeko baliabide batean argitara daiteke eraso.***⁴⁵

Normalmente esta forma de violencia se relaciona con el *cyberbullying*. Sin embargo, en el *happy slapping* normalmente hay la intención previa de difundir el contenido, es decir, una **grabación premeditada**.

Bestalde, irudiak erregistratzen dituen pertsonak ez du erasoan zuzenean parte hartu behar nahitaez, baina erasoaren arduraduna izango da hala ere, ez baitu galarazten hori gertatzea eta, gainera, grabatu eta partekatu egiten baitu.

Hala, bada, hainbat pertsonak eragingo dute kaltea. **Happy slappinga gertatzen denean, hainbat pertsonak hartzen dute parte biktimizazioan**, bideoa kontaktuen artean zabaltzean edo partekatzean.

Happy slappingean, **eraso fisikoa, ahozkoa edo sexuala lehenengo fasea baino ez da**. Eraso nagusia amaitutakoan, **Internet bidez hedatzen da**, eta kalteak denboran irauten du; hala, eraso jasan duen pertsonak ezin dio etengabeko biktimizazioari ihes egin, eta hamarnaka, ehunka edo milaka pertsonak ikus dezakete bideoa sarean.⁴⁶

Gainera, kalteaz gain, beste indarkeria mota batzuk ere gerta daitezke, hala nola cyberbullyinga, iruzkin iraingarrien bidez, edo saretik kanpoko indarkeria gerta daiteke, irudietan biktima ezagutzen bada.⁴⁷

Azkenik, happy slappingaren helburua ez da beti izaten biktima kaltetzea edo apaltzea. Zenbait pertsonaren helburua **eduki “barregarria” edo “entretengarria” sortzea izaten da, Interneten ospea irabazteko**. Jokabide horrek sarea modu arduragabeen erabiltzea dakar, erasotzailerak ez dira inolako kalteren arduradun sentitzen, eta konplize edo lekuko izatearen arteko anbiguotasunean aritzen dira.⁴⁸

f. *Online groominga edo ziberengainua*

Luziak 11 urte ditu, eta oso gustuko du Interneten txateatzea. Txatei esker adiskide asko ditu sarean, eta bere bizitzaren zati bat partekatzen du haiekin. Egun batean, bere adina duela esaten dion heldu bat ezagutuko du sarean, eta adiskide egingo dira. Oso atsegina da berarekin, eta ezin hobe ulertzen duela sentitzen du Luziak. Egun batean, ea masturbatzen den galdetuko dio gizonak, eta, hori zer den oso ondo ez dakien arren, baietz erantzuten dio. Handik aurrera, gizonak gero eta argiago hitz egingo dio sexuaz, eta elkarrekin izan ditzaketan sexu-harremanez. Elkarrizketek aurrera jarraituko dute, eta sexu-edukia duen materiala bidaltzen hasiko zaio gizona. Ondoren, biluzik ageri den argazki bat bidaltzeko eskatuko dio Luziari, eta hark ezetz esaten dionean, adiskide izateari utziko diotela eta Luziak kontatu dizkion sekretuak denei esango dizkiela esango dio. Luziak amore emango du, eta biluzik ageri den argazki bat bidaliko dio.

Online groominga (sareko sexu-jazarpena eta sexu-abusua) delitua da, eta honela gertatzen da: **pertsona heldu bat harremanetan jartzen da sarean haur edo nerabe batekin**, eta haren konfiantza bereganatzen du, **sexu-jarduera batera eramateko helburuarekin**. Sexuaz hitz egitea eta sexu-edukia duen materiala lortzea nahiz sexu-harremanak izatea gerta daitezke.⁴⁹ Helburu hori lortzen ez bada ere, online grooming gisa hartzen dira baita ere xede hori lortzeko egiten diren egintza material guztiak.

Argi izan behar dugu konfiantzazko harremana ezartzen den prozesua **haurren aurkako sexu-abusu fisikoaren oso antzekoa dela**. Engainua hasierako fasea da, biktima poliki-poliki bakartzea lortzeko asmoz, laguntza eskain diezaiokeen saretik urrunduz eta ezkutukerian eta intimitatean oinarritutako giroa sortuz. Kasu honetan, baliabide teknologiko bat erabili denez jokatzeko, abusua egiten duenak sexu-edukia duen materiala igorri ohi dio haurrari lehendabizi (elkarrizketetan sexuaren gaia txertatzen joaten da apurka-apurka), identitate faltsua

erabiltzen du (adingabea dela esaten du), bai eta biktimaren adinaren arabera egokitu-tako hizkuntza ere.

Ziberengainua egiteko hainbat modu dauden arren, eta kasu bakoitza desberdina den arren, *online groominga* hautemateko eta horri aurrea hartzen laguntzeko jokabide-erduak identifikatu ahal izan ditugu. **Jokabide horiek ez dute zertan denbora-lerro jakin bat jarraitu**, eta gainjar daitezke.⁵⁰

Hauek dira online groomingaren edo ziberengainuaren faseak:^{51 52}

1. Konfiantzazko lotura.

Erasotzailea haurrarekin harremanetan jartzen da, eta konfiantzazko lotura ezartzen du, eroskeriaren edo engainuen bitartez askotan. Lotura oso estua izan daiteke, eta biktimari ezinezkoa gerta dakioke lotura hori apurtzea, oso garrantzitsua iruditzen zaiolako. Horretarako, abusu-egileak honako hauek egin ditzake:

- Beste pertsona baten itxurak egin, biktimaren antzeko adina duen pertsonarena, adibidez.

- Opariak egin, edo haurra bidaia batera eraman.
- Adiskide izateko aukera eman, biktimaren arazoak hobeto ulertzeko eta enpatia handia adierazteko. Zenbaitetan, haurrak *offline* inguruan duen maitasun-premiaz balia daiteke.
- Biktimaren informazio pertsonala jaso dezake, harekin harremanetan jartzeko, engainatu egin dezake eta gero xantaia egin diezaioke.

2. Biktima bakartzea.

Biktima bakartuz, hura babes-sare naturaletik (senideak, adiskideak, irakasleak, etab.) ateratzea lortu nahi izaten du erasotzaileak, eta babesik gabe gelditzen da. Horrela:

- Beraien arteko harremana sekretua, pribatua eta konfidentziala izan dadin lortzen ahalegin daiteke.
- Haurra konbentzitzen du, elkarren artean partekatzen dutena beste inorekin parteka ez dezan.

3. Arriskuaren balioespena.

Erasoaren egileak pribatutasuna bermatu nahi du. Funtsezkoa da biktimak harremana sekretupean gordetzea, eta honako hauek egin ahal izango ditu:

- Egoera horren berri beste norbaitek duen galdetu.
- Elkar komunikatzeko erabiltzen duen ordenagailua edo bestelako gailua nork erabil dezakeen ikertu.

- Internet, sareak eta txatak norbaitek kontrolatzen edo zaintzen dituen galdetu.
- Bere hizkuntza eta jokabidea biktimaren ezaugarrien arabera egokitu:⁵⁴
 - Generoa kontuan hartuta: mutilak baldin badira, hizkuntza zuzenagoa izan daiteke; aldiz, biktima neska baldin bada, haren lagunen edo biktimaren beraren sexu-esperientziei buruz iker dezake.
 - Adina kontuan hartuta: Haurraren garapen-etapari dagokion jakin-min sexualaz baliatzen da.

4. Sexu-ukigabetasuna haustea (desentsibilizazioa).

Konfiantza hartzen duenean, sexuari buruz hitz egiten hasiko zaio, poliki-poliki. Biktima gai eta hiztegi sexuarekin txertatzen joatea bilatzen du. Xede horrekin:

- Mugak behartzen ditu (indarkeriarik gabe, modu sotilean), honelako galderak eginez: “musu eman dizute inoiz?”⁵⁵
- Sentiberatasuna eta inhibizioak murrizten ditu, sexualki esplizitua den materiala erabiliz, esate baterako, sexu-educia duten irudiak.
- Fantasiak sortzen ditu, adibidez, sexu-harremanak dituzten fikziozko eszenak proposatuz.

5. Sexu-eskaera.⁵⁶

Online groomingaren helburu nagusia da. Sexu-edukia duen materiala igor diezaion proposatzen dio biktimari, edo sexu-fantasietan parte har dezan edo konta diezazkion; harremanak zuzenean izatea ere proposa diezaioke. Fase honetan, teknika hauek erabiltzen dira: manipulazioa, mehatxuak, behartzea edo xantaia. Horrela, honako hauek egin ditzake:

- Haurrari argazkiak bidaltzeko eska diezaioke, honelako iradokizunak erabiliz: “Agian zure buruari argazki bat atera diezaiokezu zure burua ukitzen duzunean”.
- Elkarrizketetan sexu-fantasiak erabil ditzake, eta zer nahi duen esateko eska diezaioke biktimari.
- Aurrez aurre ikusteko konbentzitu dezake biktima: “Agian egunen batean elkartu gaitezke, eta zenbat maite zaitudan erakutsiko nizuke”.
- Honelako esaldiekin manipulatu: “Egin ezazu, erakutsi maite nauzula, ez hutsik egin”.

- Partekatu duten informazioa edo materiala hedatzearekin mehatxatu dezake, edo xantaia egin diezaioke

Ziberjazarpen sexuala adingabeen artean

Sexu-jazarpena Interneten adingabeek egin dezakete baita ere. Beharbada, ez ditu online groomingaren jarraibide edo estrategia berberak erabiliko (adibidez, hizkuntza egokitu), baina haurrei eta nerabeei eragiten dien indarkeria mota bat da. 2017an, 772 atxiloketa eta ikerketa egin ziren IKTen bidezko sexu-delituen ondorioz, eta 75 kasu adingabeei zegozkien (% 9,71).⁵⁷

Ziberjazarpen sexuala elkar ezagutzen duten adingabeen artean gertatu ohi da (bikotekidea edo bikotekide ohia, eskolako ikaskideak), baina sarearen bidez kontaktatzen duen pertsona ezezagun batek ere egin dezake.

g. Sexu-izaerako edo indarkeriazko materialarekiko esposizioa, nahi gabe

Lusek 9 urte ditu. Bere logelan dago, eskolako lan baterako basoko animaliei buruzko informazioa bilatzen, baina hurrengo hilabeteetan ikusi ahal izango diren filmak iragartzen dituen haurrentzako orrialde batean sartu da. Sartu denean, askotariko sexu-irudiak agertu zaizkio, eta ez daki nola irten hortik. Oso harrিতa dago, eta irudi asko ez ditu ulertu ere egiten. Orrialdea ixteko dagoenean, ama sartu da logelan, eta zertan ari den galdetu dio, iskanbila handia sortuz. Lusek ez daki zer esan, eta isilik gelditu da.

Gaur egun, haur eta nerabeek mugarik gabe erabil dezakete Internet, **eta, hala, sexu-izaerako eta indarkeriazko materiala sarean dabilen edonoren eskura dago**. Nahi gabe, beren adinerako egokia ez den edukia ikus dezakete, eta horrek beren

garapenari eta harreman pertsonalak ulertzeko moduari eragin diezaieke. Horixe da sexu-izaerako edo indarkeriazko materialarekiko nahi gabeko esposizioa.

Internet erabiltzerakoan, **bilaketak egiterakoan edo printzipioz inolako arazorik sortu beharko ez luketen artxiboak jaisterakoan**, sexu-eszenak edo indarkeriazkoak agertzen zaizkie. Gerta daiteke **eduki hori ezezagun batek bidaltzea** hurrari, edo senide edo adiskide batek, bai elkarrizketa-txat baten bitartez bai beste edozein gailuren bitartez (ordenagailua, mugikorra, tableta, etab.), begiratzera behartzeko.⁵⁸ Kasu honetan, exhibizionismo deritzon esposizio modu baten aurrean egongo ginateke, hurrari material hori erakusten dion arduradun bat dagoelako.

Aukera horien guztien barnean, **beste bilaketaren bat egiten ari garen bitartean eduki horretan sartzea izan ohi da ohikoena**. Zenbaitetan, erasotzaileek

webguneen edukiak *hackeatu* ditzakete, adingabeei zuzendutako material desagokia txertatzeko, haien tolesgabetasuna edo sexu-ukigabetasuna hausteko xedez.

Indarkeriazko edukiari dagokionez, zenbait ikerketak telebistako programa edo bideo-jokoren aurreko esposizioa erasokortasunaren, jokabide antisozialen eta etsaikeriazko pentsamenduen handitzearekin erlazionatu dute.⁵⁹ Hala, kasu horretan haurra kaltetu edo eraso nahi duen pertsonarik ez dagoen arren, **garrantzitsua da esposizio mota horrek haurren garapenean izan ditzakeen inplikazioak ezagutzea**, desagokia izan baitaiteke, haurraren adina edo heldutasun-etapa kontuan hartuta

h. Jokabide kaltegarriak bultzatzea

Interneteko zenbait edukik eragin handia izan dezakete haur eta nerabeengan. Aurreko atalean deskribatutako indarkeriaz gain, esposizio horrek **haien osasunari eta osotasun fisikoari eragin diezaieke. Norberaren burua lesionatzeko azalpenak ematen dituzten edo horretara bultzatzen duten** plataformak, edo **elika-dura-nahasmenduak** (anorexia, bulimia, etab.) bultzatzen dituzten webguneak,⁶⁰ etc.

Orrialde horietan ebakiak nola egin, beren buruaz beste nola egin, jateko gogoari aurre nola egin, jokabide horiek guztiak sekretupean nola izan, etab. azaltzen dituzte.

Gai horiei buruzko webguneetan aurki ditzakegu horrelakoak (adibidez, anorexia eta bulimia bultzatzen dituzten blogak), edo **bideoak edo aholkuak aurki ditzakegu sare sozialetan**, bai eta **mezularitza-tal-**

de diskretuagoak ere. Horietan, pertsonaren esku informazioa jartzeaz gain, kasu batzuetan esperientziak edo aholkuak partekatzen dituzte: gurasoei nola ezkutatu ez dutela jaten, edo non egin zehazki ebaki horiek.

Gainerako indarkeria motekin gertatzen den bezala, sarean, **bitartekoak ondorioak areagotzen ditu**. Edukien hedapen eta biralizazio azkarrak, ohitura arriskutsu horiek egiteko **“dei-efektua”** eragin dezake, ANAR⁶¹ Fundazioak azaltzen duenaren ildotik.

Horregatik, garrantzitsua da haur eta nerabeen ondoan egotea eta aholkuak ematea, **jarrera kritikoaren bidez eduki horiek bazter** ditzaten ahaldunduz

Sharenting

Adingabeen gehiegizko esposizioa Interneten

Sharenting hitza ingelesezko bi hitz hauetatik dator: *share* (partekatu) eta *parenting* (hazkuntza). Gurasoek gero eta ohitura handiagoa dute beren seme-alaben bizitza publikoki sarean partekatzeko (urtebetetzeak, jarduerak, aisialdi-uneak, etab.). Hasiera batean, ez dirudi ohitura kaltegarria denik, baina jabetu behar dugu esposizio horrek haurren bizitzetan zer ondorio izan ditzakeen.

Aztarna digitala Internet erabiltzen dugunean uzten dugun arrastoa da, eta ezin dugu ezabatu. Haurren kasuan, aztarna hori gero eta lehenago sortzen da, aitek eta amek informazio pertsonala argitaratzearen ondorioz (argazkiak, bideoak, etab.). Zibersegurtasunari buruzko AVG⁶² enpresak 2013an hainbat herrialdetako 6.017 gurasori egindako inkesta baten arabera, inkestari erantzun zioten amen % 81ek onartu egin zuen beren haurtxoen argazkiak igotzen zituztela Internetera, gehienek haurrak urtebete egin baino lehen (% 62). % 80k lagunek eta senideek ikusteko partekatzen zuten materiala, eta % 20k beren seme-alabenganako harrotasuna adierazteko.

Ohitura horren aurreko kezkak hiru adar ditu. Lehenik, haurren eta nerabeen eskubiak. Zenbateraino baimen dezakete gurasoek beren seme-alaben arlo hori? Zer pentsatuko dute haurrek beren “bizitza digitalaz” jabetzen direnean, eta bizitza hori haiek jaiotzen aurretik ere hasi dela ikustean? Ohitura hori nahiko berria dela kontuan hartuta, beharrezkoa izango da urte batzuk itxarotea haur eta nerabeengan izan dituen benetako inplikazioak ikusteko.

Espainiako legedia,⁶³ aintzat hartzen badugu, gurasoek eman behar dute 14 urtetik beherrako adingabeen informazio pertsonala partekatzeko baimena, baina horrek ere bere mugak ditu. Haurrek ohorerako, intimitate pertsonal eta familiarerako eta beren irudiarekin lotutako eskubidea dute, eta gurasoek, legezko tutoreek eta abarrek egindako ekintzek eskubide horiek urratzen dituztela uler daiteke.

Bestalde, haurrak arriskuan jar ditzakegu nahi gabe, ziberdelinkuenteek sare sozialetan zintzilikatutako material hori har dezaketelako. Babesari dagokionez, askotan ezin dugu kontrolatu nor ikusten dituen argitaratzen diren eduki horiek, eta, beraz, helduok hurrei zuzenean eragiten dien jokabide arriskutsua onartzen ari gara, eta zenbait indarkeria motaren aurrean jar ditzakegu, hala nola ziberjazarpenaren edo *online groomingaren* aurrean.

Azkenik, haurren gehiegizko esposizio horrek haien nortasunean eragin dezake zuzenean, haurrek ezaguera izan aurretik ere hasitako ibilbide digitalak zehaztu baitu.

Bestalde, genero-rolen esposizioan ere arreta berezia jarri behar dugu, gizonen eta emakumeen arteko desoreka betikotu besterik ez baitute egiten, eta, haurren kasuan, oso goiz gertatzen denez, haien nortasunean, gizarte-harremanetan eta bizi-espektatibetan eragina izan dezake.

Zenbaitetan, haurren hipersexualizazioa gertatzen da (nesken kasuan, bereziki), eta horrek ere zenbait indarkeria motaren aurrean jar ditzake. Bereziki, arriskutsua da irudi horiek sareko bideoen plataformetan zintzilikatzea,⁶⁴ edozein pertsonak eskura baititzake, baita sarean abusatzen duten

pertsonak ere. Hipersexualizazio horrek eragina izan dezake baita ere haurren garapen pertsonalean eta beren buruaren pertzepzioan, eta “lerrokatzera” eta “genero-eredu” hori etengabe imitatzen behar ditzake.⁶⁵

Haurrak eskubidedun subjektuak dira, eta ez dira inoiz manipulatu behar, edozein aitzakia edo helburu oinarritzat hartuta.





4. NOLA ERLAZIONATZEN DIRA INDARKERIA MODUAK?

Aldarkeria elektroniko moten aurreko espozizio desberdinak erlazionatu egiten direla ikusi ahal izan dugu: indarkeria modu batzuk aldi berean edo elkarren ondoren gertatzen dira, eta **lotura argia dago mundu fisikoan (offline) gertatzen den indarkeriaren eta birtualean (online) gertatzen denaren artean**. Bestalde, indarkeriak askotariko biktimak aurki ditzakeela ikusi dugu⁶⁶, eta askotariko eragileak edo konplizeak izan ditzakeela, pertsona helduak nahiz adingabeak.

Eskolako jazarpenak ziberjazarpena ekar dezake, biktima grabatu egiten bada (*happy slapping*) eta Interneten argitaratzen bada; hala, jazarpen fisikoa betikotu egiten da. Sexu-educia duen materialaren aurreko esposizioa *online groominga* izan daiteke, eta horrek haur-pornografia eta *sextortsioa* ekar ditzake. Gerta daiteke parekoen arteko sextingak bikotearen barneko indarkeria edo bikotekide ohiarekiko indarkeria eragitea, xantaiaren bitartez; edo gerta daiteke Interneten argitaratutakoak indarkeriazko gatazka eragitea bikotean saretik kanpo. Eta adibide gutxi batzuk baino ez dira horiek.

Elkarren ondoren edo aldi berean gerta daitezkeen hainbeste aldaera daudenez, erasoak ez du amaierarik, eta oneratzeko bideari eragiten diote. Internet bidez zabalduak irudien eta bideoen kasuan, **biktimak etengabe biziberritu behar du esperientzia**, eta ziurrenik ezagutzen ez duen jendearen erasoak pairatuko ditu.

Horren fenomeno konplexuaren aurrean, erantzunak integrala izan behar du, eta arazoaren alderdi guztiak bildu behar ditu. Indarkeriaren kontra jokatzeko

modurik eraginkorrena prebentzioan oinarritzen da, eta, bereziki, haurrei eta helduei zuzendutako hezkuntza positiboan.


Afektibitate- eta sexu-hezkuntza nahiz Internet modu seguru eta arduratsuan erabiltzeko prestakuntza oso tresna boteretsuak dira haurren eta nerabeen kontrako indarkerian. Hala ere, haiei irakatsi aurretik, pertsona helduok, senideek, irakasleek, poliziek, osasunaren arloko profesionalak eta abarrek ere ikasi egin behar dugu. **Aurreiritzirik gabe eta beldurrik gabe, Internet eta teknologia haurren eta nerabeen garapenerako, ikaskuntzarako eta sozializatorako iturri onuragarriak soilik izatea lortuko dugu.**

Afektibitate- eta sexu-hezkuntza

Afektibitate- eta sexu-hezkuntza prebentzio-tresna bat da, haurren kontrako askotariko indarkeria moten aurrean. Arrisku-egoera baten aurrean noiz dauden hautemateko eta horren aurrean jokatzeko aukera ematen die haur eta nerabeei.

Educia adin eta hezkuntza-etapa bakoitzaren arabera egokituz gero, beren burua ezagutzen eta errespetatzen ikasiko dute, sexualitatearen balioespen integral eta positibo baretik. Gorputz-autonomia, onespina, genero-berdintasuna, afektuak eta atxikitasun segurua zer den ikasteak harreman-eredu osasuntsuak eta indarkeriarik gabeak ezartzen lagunduko die.


1



ONLINE SEXUAL GROOMINGA

Heldu bat, nerabe baten itxurak eginez, harremanetan jartzen da sarean Carlosekin, 14 urte dituenarekin.

2



MATERIAL DESEGOKIAREKIKO ESPOSIZIOA, NAHI GABE

Helduak sexu-edukia duten irudiak bidaltzen dizkio Carlosi, eta biluzik agertzen den argazkiak bidaltzeko eskatzen dio.

4



SEXTORTSIOA

Helduak esaten dio, sexu-edukia duen material gehiago partekatzen ez badu berarekin, haren adiskide guztiei bidaliko diela biluzik ageri den argazkia.

3



SEXTINGA

Carlos ez dago ziur, baina irudiak ustezko "lagunarekin" partekatzea onartzen du, haserretu ez dadin. Hala ere, une batean deseroso sentitzen da, eta ez dio ezer gehiago bidaltzen.



6

SEXTORTSIOA

Carlosen neska-lagunak, Martak, argazia ikusi du eta haserretu egin da, eta hark bidalitako beste argazki batzuk partekatuko dituela esanez mehatxu egiten dio.



7

ONLINE INDARKERIA BIKOTEAREN BARNEAN

Une horretatik aurrera, sakelako telefonoa begiratzen dio etengabe, eta mezuak bidaltzen dizkio uneoro.



5

MATERIAL DESEGOKIAREKIKO ESPOSIZIOA, NAHI GABE

Carlosek ez du aurrera jarraitu nahi, eta helduak sare sozialetara igotzen ditu haren irudiak; adingabe askok dute hor sartzeko aukera.



7

HAPPY SLAPPINGA

Egun horretatik aurrera, eskolan ere barre egiten diote. Arratsalde batean, beste ikasle batzuek iraindu egiten diote, zakila txikia duela esanez; eraso grabatzen dute eta Interneten zintzilikatzen dute.

6

ZIBERJAZARPENA

Carlosen ikaskideek ezagutu egiten dute, eta iruzkinak idazten dizkiote, burla eginez.



- Historia
- Indarkeria



5. INDARKERIA MOTA GUZTIAK DELITU DIRA?

Ulertu behar dugu **teknologiak eta Internetek oso bilakaera azkarra dutela**, eta, beraz, ez da erraza arrisku berrien aurreko neurri egokiak aurkitzea, eta denbora behar da. Arlo penalean, **delitu be-**

**rriak tipifikatu dira, online indarkeria-
ren portaera bereziekin lotuta.** Gainera, Kode Penalean jasotako zenbait jokabide hainbat indarkeria motatan aplikatu ditzakegu, “delitu berezia” osatu ez arren.

Indarkeria moduak	Kode Penaleko korrespondentzia	Oharrak
<i>Baimenik gabeko sextinga</i>	<p>K.P.ko 197. artikulua: sarbide eta interzeptatze ez-zilegia; IK-Ten bidez sekretuak aurkitzean eta agertzean datza.</p> <p>K.P.ko 189. artikulua: haur-pornografiarekin lotutako delitua.</p>	<p>197. artikulua kasuan, materiala borondatez utzi denean baina hori hedatzeko baimenik eman ez denean aplikatzen da delitua.</p> <p>Sexu-edukia duten irudiak adingabeenak direnean, haur-pornografia hedatzeko delitu bat da beti, eduki hori zabaltzen duen pertsona adingabea denean ere bai.</p>
<i>Sextortsioa</i>	<p>K.P.ko 169. artikulua eta hurr., eta 172. artikulua eta hurr.: mehatxuak egitea eta behartzea, beldur edo presio bidez eta IKTen bitartez pertsonaren borondatearen kontra egindako delitu oro barne</p>	<p>Adierazitako artikuluetan, mehatxuaren edo behartzearen sexu-izaera aintzat hartzen da.</p>
<i>Online indarkeria, bikotearen barnean edo bikotekide ohiarekin</i>	<p>K.P.ko 172. hir. eta hurr.: IK-Ten bitartez egindako jazarpena</p> <p>K.P.ko 197. artikulua: sarbide eta interzeptatze ez-zilegia; IK-Ten bidez sekretuak aurkitzean eta agertzean datza.</p> <p>K.P.ko 205. artikulua eta hurr.: ohorearen kontrakoak, irainak eta kalumniak.</p> <p>K.P.ko 263. artikulua eta hurr., eta 625.1. artikulua: datu eta sistemetako interferentzia, biktimaren datuak kaltetzeko edo aldatzeko.</p>	<p>Ondo dakigunez, indarkeria mota honek beste batzuk hartzen ditu barnean. Kasuaren arabera, delitu gehiago aplikatuko dira.</p>

Indarkeria moduak	Kode Penaleko korrespondentzia	Oharrak
<p><i>Cyberbullyinga</i></p>	<p>K.P.ko 172. hir. artikulua: IK-Ten bitartez egindako jazarpena.</p> <p>K.P.ko 173. artikulua: tratu apalgarria IKTen bitartez.</p> <p>K.P.ko 197. artikulua: sarbide eta interzeptatze ez-zilegia; IK-Ten bidez sekretuak aurkitzean eta agertzean datza.</p> <p>K.P.ko 205. artikulua eta hurr.: ohorearen kontrakoak, irainak eta kalumniak.</p>	<p>Bikotearen barneko edo bikotekide ohiarekiko indarkeriaren kasuan bezala, ziberjazarpenak modu asko hartu ditzake barnean, eta hainbat jokabide aplikatu ahal izango dira, kasu zehatzaren arabera.</p>
<p><i>Happy slappinga</i></p>	<p>K.P.ko 173. artikulua: tratu apalgarria IKTen bitartez.</p>	<p>Egiaz, ez da existitzen happy slappinga terminoa delitu gisa, baina jokabidea jasota dago.</p>
<p><i>Online groominga</i></p>	<p>K.P.ko 183. hir. artikulua: jazarpena eta abusua 16 urtetik beherakoen aurka IKTen bitartez.</p> <p>K.P.ko 388-389, 399bis, 400 eta 401. artikulua: faltsifikatze informatikoa, biktimak benetakoa dela pentsa dezan.</p> <p>K.P.ko 248. artikulua eta hurr.: iruzur informatikoa, datu faltsuak erabiltzea biktimaren jokabidea aldatzeko eta kaltetzeko</p>	<p>Haurren aurkako sexu-abusa IKTen bitartez delitu gisa jasota dago.</p> <p>Iruzur edo faltsifikazio delituak ere aplika daitezke, datu faltsuak erabiltzen direlako biktimaren engainatzeko eta kaltetzeko.</p>
<p>Ziberjazarpen sexuala</p>	<p>K.P.ko 183. hir. artikulua: jazarpena eta abusua 16 urtetik beherakoen aurka IKTen bitartez.</p> <p>K.P.ko 388-389, 399bis, 400 eta 401. artikulua: faltsifikatze informatikoa, biktimak benetakoa dela pentsa dezan.</p>	<p>Adingabeen arteko ziberjazarpen sexualaren kasuan, erantzukizun penala hainbat faktorearen arabera izango da: onespena, adingabeak erantzukizun penala izatea edo ez izatea, etab.</p>
<p>Sexu-izaerako edo indarkeriazko materialarekiko esposizioa, nahi gabe</p>	<p>Ez dago jasota</p>	<p>Ez dago nahi gabeko esposizioarekin bereziki lotutako deliturik, baina aplikagarri diren beste jokabide batzuk bai.</p>

Indarkeria moduak	Kode Penaleko korrespondentzia	Oharrak
Exhibizionismoa	K.P.ko 186. artikulua: adingabeei zuzendutako material pornografikoa hedatzea, exhibitzea.	Nahi gabeko esposizioaren kasuan bezala, materiala adingabeari erakusten baldin bazaio, adingabe bat sexu-harremanak ikustera behartzea delitua da.
Jokabide kaltegarriak bultzatzea	<p>Gaur egun, ez dago delitu gisa tipifikatuta.</p> <p>Bere burua lesionatzera, bere buruaz beste egitera eta adingabearen osasuna arriskuan jar dezaketen antzeko beste jokabide batzuetara bultzatzea IKTen bitartez.</p> <p>Haur eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes integrala emateko Lege Organiko berrian jasokoda.</p>	Nahitaezkoa da legedia berriak jokabide hori tipifikatzea, haur eta nerabeengan ondorio larriak izan baititzake.

Haurren Eskubideen Batzordeak 2010. eta 2018. urteetan Espainiari egindako gomen-dioetan, indarkeria erazteko eta haurrak babesteko lege bat nahiz berriazko neurriak garatzeko beharraren inguruan zuen kezka adierazi zion.

Ildo beretik, 2019. urtearen hasieran, Europako Batzordeak zehapen-espeditentea abiarazi zuen Espainiaren, Italiaren eta Portugalen kontra, 2011/92/EU Zuzentaraua modu egokian ez ezartzeagatik. Adingabeen

aurkako sexu-abusuen kontrako Zuzentarau horrek, kriminalen aurkako neurriak gogortzeko eskatzeaz gain, indarkeria-mota horren aurreko prebentzioa egitea eta Interneteko sexu-abusuen kontrako berriazko neurriak hartzea eskatzen zuen.⁶⁸

21:08

4G H+

Todo Entretenimiento Compras He



Facebook



Gmail



WhatsApp



Mensajes



Teléfono



Ajustes



Amazon..




App Store



Mensajes



Bn...



Brújula



Calculad..



Calen...



Cámara




Chrome



Clima



Comenta..



Comunid..



Drive



App Store



Video



e-p...



EITenedor



Escáne...

Buscar apli...



6. BADAGO BIKTIMEN ETA ERASOTZAILEEN PROFILIK?

Zenbait ezaugarri komun errepikatzen dira online indarkeria pairatzen duten biktimengan eta indarkeria hori eragitearen arduradunengan, eta prebentziorako eta hautemateko neurriak garatzeko oinarri gisa erabil daitezke ezaugarri horiek. Hala ere, garrantzitsua da azpimarratzea ezaugarri

horiek ez direla kasu guztietan betetzen, eta ezaugarri horiek izatea edo ez izatea ez dela erabakigarria.

Beraz, ikerketa gehiago egin beharko dira arlo honen inguruan errudunak nahiz biktimak sailkatu aurretik, indarkeria modu hauen konplexutasuna kontuan hartuta.

a. Biktimak

Online indarkeriak edozein haur edo neraberri eragin diezaioke. Ez dago profil bakar bat hurren kontrako indarkerian, ez eta Interneten ere. Ez dago faktore erabakigarriarik ez eta ezaugarri-multzo jakinik pertsona bat zuzenean eta nahitaez indarkeriara eramán dezaketenak. Hala ere, zenbait ezaugarri arrisku-faktore izan daitezke adingabeen kasuan.

Garrantzitsuenen artean, lehenik, segurtasun digitalaren edo sarearen erabilera osasungarri eta arduratsuari buruzko komunikazio falta nabarmentzen da familiaren barnean –Whittle, Hamilton-Giachritsis & Beech (2014) azterlanaren arabera,⁶⁹ ebiktimen % 63k ez zuten inoiz gurasoekin hitz egin gai horri buruz–; bigarrenik, aiten eta amen laguntasun falta nabarmentzen da⁷⁰, bai eta hurrek teknologia zer mailatan integratu duten beren bizitzetan eta zer-nolako erabilera egiten duten ere.

Sarea ondo ezagutzeak eta trebeziaz erabiltzeak ez du eragozten indarkeriaren biktima izatea. Adina eta sareen erabilera edozein izanik ere, edonor izan liteke indarkeriaren biktima edo jar daiteke arriskuan oharitu gabe.

Dualidad entre víctima-culpable

En el ciberespacio los roles de víctima y culpable cada vez son más difusos: una víctima de violencia puede ser perpetradora de otra,^{71 72} incluso interrelacionándose la violencia ‘online’ y la ‘offline’.^{73 74} Por ejemplo, una víctima de acoso tradicional, puede convertirse en ciberacosadora, y viceversa.

Polivictimización

Ser víctima de un tipo de violencia puede propiciar serlo de otra.⁷⁵ Como ya sabemos, las distintas formas de violencia se relacionan entre sí, formando un ciclo del que es muy difícil salir. Así, la ‘sextorsión’ puede derivar al ‘sexting’ sin consentimiento y, a su vez, este acaba en ciberacoso o acoso sexual.

Arrisku-faktore horiek ez dira erabakigarriak (guztia batera ere ez) indarkeriaren *offline* edo *online* biktimaren profil bat zehazteko orduan. Arrazoi horregatik beragatik, **ezin ditugu alde batera utzi ezaugarri horiekin bat ez datozen haurrak eta nerabeak.**



Autoestimu
baxua

Logelan
Internet
erabiltzea

Garrantzitsua
sentitzea
kontaktu asko
izategatik

Informazio
pertsonala
igotzea
sareetara edo
webguneetara

Mespretxuzko
mezuak
bidaltzea
sareetan

Sexu-edukia
duten
webguneak
bisitatzea

b. Erantzulea

Oraindik ikerketa gehiago egin behar diren arren, zenbait ezaugarri eta arrisku-faktore komun ikusten ditugu *sareko* sexu-indarkerian eta ziberjazarpenean parte hartzen duten pertsonengan. Biktimen kasuan bezalaxe, **pertsona batek ezaugarri horiek betetzea edo ez betetzea ez da nahitaezko baldintza.**

Sareko sexu-indarkeriaren kasuan, gehienguan pertsona helduak eta ezezagunak izango dira, baina eragileen % 9,71 adingabeak dira.

Sareko sexu-erasotzaileen berariazko ezaugarriak ^{76 77 78 79 80}

- Depresioa
- Tristezia, estres edo asperdura maila altuak
- Nahasmendu nartzisistak
- Nahasmendu antisozialak
- Jokabide sexual konpulsiboarekin lotutako arazoak
- Pornografiaren kontsumo handia
- Harreman luzeak izateko zailtasuna
- Ez dute bikotekiderik izaten
- Heziketa maila eta maila sozioekonomiko altua
- Normalean, ez dute delituzko aurrekaririk izaten
- Indarkeria-profil edo indarkeriazko jokabide baxua
- Autokontrol handiagoa eta inpulsibotasun txikiagoa

Ziberjazarpenean, badakigu adingabeak izango direla beti, baina ez dute ikastetxe

berera joan beharko edo ez da eskola-ordutegiaren barnean soilik gertatuko.

Ziberjazarleen ezaugarriak⁸¹

- Autoestimu baxua
- Enpatia kognitibo txikiagoa
- Enpatia afektibo txikiagoa
- Komunikatzeko gizarte-trebezia gutxi
- Asertibotasun falta
- Gatazkak ebazteko gaitasun falta
- Parekoekin erlazionatzeko zailtasunak
- Ikaskuntza-arazoak

Save the Childrenen “*Yo a eso no juego*” txostenean azaldu genuenaren ildo beretik, jazarlea etiketatu eta seinalatu aurretik, gogoan izan behar dugu haurrak eta nerabeak direla. Ziberjazarpenaren aurreko erantzunak haien eskubideak bermatu behar ditu baita ere, eta biktima oneratzera eta berreztera eta kontzientzia hartzera zuzendu behar da.

Hala, jokabide hori etorkizunean betikotzea saihestu ahal izango dugu, helduaroan indarkeriari aurrea hartzen lagunduz.



7. ZER ONDORIO ETA ERAGIN DITU?

Haur baten bizimoduaren esparruak ez daude bereizita, eta puzzle bat osatzen dute. Beraz, sarean indarkeria-mota bat edo batzuk jasateak inpaktu bat eragiten du inguru pertsonalean eta sozialean.

Gainera, biktima bakoitzarengan **prozesu pertsonala, dinamikoa, indibiduala eta subjektiboa** sortzen da gertatutakoa bar-

neratzeko garaian edo izandako bizipenaren aurrean. **Haur bakoitza bakarra den bezala, edozein indarkeria mota jasaten dutenean bizi izaten duten esperientzia ere bakarra da.**

a. Haur eta nerabeak

Indarkeria fisikoa emozionala baino kaltegarriagoa delako ustea baztertu behar dugu, eta uste hori online indarkeriaren ondorioetara ere hedatzen da. **Online indarkeria indarkeria fisikoa edo emozionala bezain erreal da**; izan ere, txosten honetan

ikusitako dugu elkarri lotuta egon ohi direla. **Indarkeriazko egoera bat aurreikusten duten arrisku-faktoreak** ez dira beti pertsona horrek jasan dezakeen **kalte fisikoa edo emozionala adierazten dutenen berdinak.**

Ziberjazarpenaren biktimen edo eragileen berariazko ondorioak^{82 83 84 85}

- Depresioa
- Antsietatea
- Autoestimua baxua
- Eskola-errendimendua okertzea
- Arazoak adiskideak egiteko orduan
- Beste indarkeria-mota batzuen biktima izateko probabilitatea handitzea
- Pentsamendu eta ideia suizidak
- Bere buruaz beste egitea
- Indarkeriazko beste egoera batzuk pairatzeko aukera
- Bizi-kalitate okerragoa
- Familiari esateko zailtasuna
- Jokabideak, efektuak eta ondorioak helduaroan betiketzea
- Harremanen pertzepzio okerra duten pertsonak
- Laneratzeko zailtasunak

Interneten sexu-indarkeriaren biktima direnen berariazko ondorioak^{87 88 89}

- Bakartzea
- Beldurra
- Bakardadea
- Bere buruari botatzea errua
- Babesteko aukerarik ez izatea
- Paranoia
- Ezintasuna
- Gatazkak gurasoekin
- Adikzioen garapena
- Diziplina-arazoak etxean eta eskolan
- Trauma osteko estresaren nahasmendua
- Bakartze soziala
- Jokabide sexual arriskutsuak (adibidez: sexu-transmisioko gaixotasunak hartzeko arriskua, sexu-babeserako metodorik ez erabiltzeagatik)

Ezinegona handiagoa edo txikiagoa izan daiteke, biktimaren ezaugarrien arabera, baina haien garapenean izan ditzakeen ondorio negatiboak oso kaltegarriak dira, eta, horregatik, indarkeria mota horiei aurrea hartzen lagundu behar diegu.

Inguruak emango duen erantzunak zehaztuko ditu, hein handian, indarkeriaren ondorioak. **Inguruak babesa eskaintzen badio eta prestatuta eta formatuta baldin badago, kaltea txikiagoa izan-**

go da, eta errazago oneratu da. Baina, formaziorik ez dagoenean, inguruak ez du behar bezala erantzuten, eta erasoaren ondorengo prozesuak haurra edo nerabea biktimiza dezake berriro.

Online indarkeriaren kasuan, **jasandako abusuari esperientzia horren ebidentzien aurreko ezintasuna gehitzen zaio, irudi horien hedapena edo kontrola ez baitago biktimaren esku.**

b. Familiak

Gaur egun oraindik, **oro har, familiek, aitek eta amek, zailtasunak dituzte haur eta nerabeen sareko bizitza ulertzeko**. Zenbaitetan, ez dugu ulertzen gure seme-alabek pantailen bidez garatzeko eta erlazionatzeko duten premia.

Ezjakintasun, aurreiritzi edo beldur horiek indarkeriaren ondorioetara ere iristen dira, behin hori gertatu ondoren.

Ondorioak familia-inguruan^{90 91}

- Hasierako xok-egoera
- Sinesgogortasuna
- Amorrua edo errudun-sentimendua, egoera ez eragozteagatik
- Haurraren gaitzespena
- Biktima-izaera minimizatzen duten erantzun hotzak senideen aldetik

Badirudi teknologiek berorien bidez erlazio-natzen garen pertsonetara ezartzen duten distantzia arduradun egiten gaituztela, horrelakoak ez pentsatzeagatik: “ez nuke hau bidali behar”, “hau ez da normala”, “pertsona hau ez da fidagarria”, etab.

Gogoan izan behar dugu, *online groomingaren* kasuan bereziki, engainua poliki-poliki eta ziurtasunez egiten dela; ez dago haurren

onespenik, ez dira gertatzen diren jabetzen, eta ez dituzte tresna egokiak. **Inoiz ez da haurren edo nerabeen errua.**

Barne-komunikazioak eta inguruaren babesak garrantzi handia dute, bai indarkeriari aurrea hartzeko bai ondorioak ez betikotzeko.

c. Gizartea

Haurren kontrako edozein motatako indarkeriak kostu bat du gizartearentzat. Aztertu berri ditugun ondorioak eta eraginak modu egokian tratatzen ez badira, helduaroan betikotu egin daitezke, eta kostu izugarria ekarriko dio horrek ikuspegi gizatiarretik. Izan ere, osasunaren esparrutik emandako informazioaren arabera, sarean arazoak dituztelako joaten diren lau pazientetatik bat (adikzioak, pornografia-kontsumoa, etab.) online esplotazioaren edo sareko sexu-abusuaren biktima izan da.⁹² Gizarteak ezin du ezikusiarrena egin haurren kontrako indarkeriaren aurrean, guztion erantzukizuna baita.

Bestalde, behin indarkeria gertatu ondoren, egoera horri aurre egiteko zuzendutako baliabideek kostu ekonomiko bat dute. Epe laburreko, ertaineko eta luzeko kostuez ari gara, eta gizarteko hainbat esparrutan gertatzen dira: hezkuntza-sisteman, osasun-sisteman, sistema judizialean, haurrak babesteko zerbitzuetan, etab.

Gaur egun, ezinezkoa da ebaluatzea haurren kontrako *online* edo *offline* indarkeriaren kostuan dagoen aldea. Zenbait erakundek haurren kontrako indarkeria fisikoaren zati txiki bat balioetsi ahal izan dute, eta kopuruak izugarriak izan dira. 2018an, EDUCO erakundeak kalkulatu zuen zenbat kostatzen zaion Espainiari urtero adingabeen aurkako sexu-indarkeria: 979 milioi euro.⁹³ Horrek pentsarazten digu indarkeria mota honi aurrea hartzeko edo berori hautemateko eta horren aurrean berehala erantzuteko beharrezko metodoak ikertu beharko direla, eta horien kostua eta aurrekoa konparatu beharko dira.



INDARKERI BIRALA
Datuak >



8. ZENBATERAINOKO LARRITASUNA DU ARAZO HONEK ESPAINIAN?

Haurren kontrako *online* indarkeriaren larritasuna zehaztu nahian, bi informazio-iturri erabili ditugu. Lehenengo, eskura ditugun datu ofizialak, Barne Ministerioak emandakoak, erabili ditugu. Bestetik, inkesta bat egin diegu 18 urtetik 20ra bitarteko espainiar gazteei, eta haurtzaroan eta nerabezaroan izan dituzten esperientziei buruz galdetu diegu.

Datu ofizialak

Barne Ministerioak, urtero, ziberkriminalitateari buruzko azterlan bat argitaratzen du ("Estudio sobre Cibercriminalidad")⁹⁴. Azterlan hori oinarri hartuta, salaketan % 3,60 eta atxiloketen eta inputazioen % 7,49 adingabeekin lotuta daude.

Horrela, fenomeno honen ikuspegi globalagoa lortu ahal izan dugu. Dena den, kontu handiz aztertu behar ditugu datu horiek, erantzunak erabat desberdinak izan baitaitezke erabilitako tekniken arabera.


Interneten, indarkeria askotariko jokabideetan islatzen da, eta, askotan, hurrek eta nerabeek ez dute kontatzen zer gertatzen zaien; beraz, **oso zaila da juridikoki horrelakoak kalifikatzea eta arazoa benetan zenbaterainokoa den jakitea.**⁹⁵



Dena den, badakigu zenbat handitu den Interneten erabilera azken urteotan, eta zer bilakaera izan duten salaketek. Barne Ministerioak aldaketa horri buruzko datuak eskaini ditu 2008tik 2017ra bitartean, 10 urtetik 15era bitarteko haur eta nerabeei erreparatuta.

Ikus dezakegunez, Interneten erabilera modu konstantean handitu da 2008tik, eta oso antzekoa da nesken eta mutilen artean; ez dago alde handirik genero-aldetik.

1engo grafikoa. Interneten erabilerak 10 urtetik 15era bitarteko neskatu, mutiko eta nerabeen artean izan duen hazkundera (2008-2017)




Iturria: geuk egina, Barne Ministerioak emandako datuetatik abiatuta. Estudio sobre la cibercriminalidad en España. Madril. 2008, 2009, 2010, 2011, 2012, 2013, 2014, 2015, 2016, 2017. urteak.

Zigor-arloko araudiak delitu gisa jasotzen dituen jokabideei dagozkie datu ofizialak. Legediak aurrera egin badu ere, badira zenbait jokabide, delitu gisa ez tipifikatu arren, inguruabar edo ezaugarri berberak dituztenak, eta tipifikatuta dauden eta ezaugarri bertsuak dituzten beste batzuetan biltzeko ahalegina egiten da horietako askotan. Ildo horretatik, horiek guztiak haurren kontratuko indarkeria dira, eta, beraz, onartezinak dira.

Gainera, aurkezten diren salaketez ari gara, eta, beraz, ez dituzte ziurrenik indarkeria kasu guztiak islatzen. Delitu zibernetikoen arloko salaketek gora egin dute 2014tik (ohorearen aurkako delituak salbuespen), eta hazkundera are handiagoa izan da sexu-delituekin⁹⁶ eta mehatxu eta derrigortzearekin lotutako salaketeta.⁹⁷

2. grafikoa. Biktimizazioaren bilakaera, biktima adingabea denean (2014-2017)



Iturria: geuk egina, Barne Ministerioak emandako datuetatik abiatuta. Estudio sobre la cibercriminalidad en España. Madril, 2014, 2015, 2016, 2017. urteak.


2017an (azterlana argitaratu zen azken urtea) **adingabeen aurkako delituekin lotutako 2.286 salaketa⁹⁸ izan ziren; horietatik 926, mehatxu egitearekin eta derrigortzearekin lotuta zeuden, eta 703, berriz, sexu-delitu zibernetikoekin lotuta.**

Generoaren ikuspegitik izan daitezkeen aldeei erreparatuta, ondorengo grafikoan ikus dezakegunez, **indarkeria zibernetikoak gehiago eragiten die neskei, bai haur eta bai nerabeen kasuan**, eta alde handiak daude. Biktima adingabeei dagozkien

salaketa guztien artetik % **65,44 neskei** zegozkien. Bi delitu tipo nabarmenenak **sexu-delituek eragindako salaketak eta mehatxu eta derrigortzeak dira.**

Lehen tipo horren barnean, **455 salaketak izan zuten biktima neska bat**, eta 248k mutil bat. Mehatxu eta derrigortzeei dago-kienez, **ia bi aldiz gehiago dira biktima neskak (haurrak eta nerabeak) dituzten salaketak** (600 kasu dagozkie neskei, 326 mutilei).

3. grafikoa. Adingabeen kontra erregistratutako biktimizazio elektronikoa, generoa eta kopuru osoa bereiziz (2017)




Iturria: geuk egina, Barne Ministerioak emandako datuetatik abiatuta. Estudio sobre la cibercriminalidad en España 2017. Madrid

Azkenik, delitu hauei dagozkien ikerketak eta atxiloketak 4.813 izan ziren guztira: % **76,98** gizonezkoei zegozkien, % **23,02** emakumeei, eta % **7,49** adingabeei.

Adin-tarteari dagokionez, delitu egin zuten pertsonen % **39,26** urtetik 40ra bitartekoak ziren (1.950 pertsona).

4. grafikoa. Atxiloketa eta ikertutako enbunekoak, adin-tarteen arabera por franja de edad



Iturria: geuk egin, Barne Ministerioak emandako datuetatik abiatuta. Portal Estadístico de Criminalidad 2017. Madril

Gure emaitzak: inkesta

Haurren kontrako sareko indarkeriaren errealitatea hobeto ezagutzeko eta gai honi buruzko datu ofizialak aski ez direnez, indarkeria modu horiei buruzko geure azterketa egin dugu Save the Childrenen. Ildo horretatik, estatuan gertatzen denaren ordezkari den lagin bat lortu dugu, egoeraren argazki moduko bat eginez, gerora egin daitezkeen ikerketetarako abiapuntu gisa baliagarri izango delakoan.

Inkesta egin zaie 18 urtetik 20ra bitarteko Espainiako ia 400 gazteri, beren haurtzaroan edo nerabezaroan *online* indarkeria motaren baten eraginik jasan duten jakiteko, bai eta

zer neurritan eragin dien zehazteko ere. Zehazki, gai hauek aztertu ditugu: baimendu gabeko *sextinga*, sextortsioa, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria, ziberjazarpena, (sexu-izaerakoa edo ez), *happy slappinga*, *online groominga*, eta sexuaren edo indarkeriaren esparruko materialarekiko esposizioa, halakorik nahi ez izan arren.

Bildutako datuek emaitza interesgarriak erakutsi dizkigute sarearen erabileraz, askotariko indarkeria motez edota elkarrekin dituzten erlazioez.




Interneten erabilera

Interneten erabilerrari buruzko lehen azterketa batean, ikus dezakegu dezente aldatu dela Interneten lehen aldiz sartzeko adina, ondorengo grafiko honetan ikus dezakegu-

nez: adinik ohikoena 12 urte da, baina batez beste Interneten sartzeko adina 11koa da amaiera aldera.

5. grafikoa. Parte-hartzaileen banaketa, lehen aldiz Interneten sartu ziren adinaren arabera.




Iturria: geuek egina, online egindako inkestaren emaitzetatik abiatuta.

% 43,1ek egunean 1-2 ordu egiten zituen Internetera konektatuta; % 34,7k, 3-4

ordu; eta % 13,2k, egunean 4 ordu baino gehiago.

6. Grafikoa. Internen erabilera inkesta egin zaien artean, haurtzaroan eta nerabezaroan.




Iturria: geuk egina, online egindako inkestaren emaitzak abiapuntutzat hartuta.

Erabilera horri dagokionez eta **gurasoek ezarritako kontrolari edo mugei erreparatuta, parte-hartzaileen % 51,9k ez zuten araurik**; eta arauak zituztenen artean, ohikoena Interneteko konexio-orduekin eta sarean nabigatzean izan zitzaizkeen arriskuei buruzko azalpenarekin zegoen lotuta.

Erabiltzen zituzten sare guztien artean, adingabeak zirenean gehien erabiltzen zituztenak WhatsApp, Instagram, YouTube eta Facebook ziren, ondorengo grafikoan ikus dezakegunez.

7. grafikoa. 18 urte bete aurretik erabiltzen zituzten sareak



Iturria: geuk egina, online egindako inkestaren emaitzak abiapuntutzat hartuta.

Emaitzak generoaren arabera zehazten baditugu, datuek diote batez beste neskek gehiago erabiltzen dituztela sare sozialak

mutilek baino, eta nabarmen presentzia handiagoa dute:

Ohikoenak diren 10 sare sozialen erabileran dauden aldeak sexuaren arabera⁹⁹

	Hombres (%)	Mujeres (%)
Facebook	60,7	67,2
Instagram	65,3	78,5
YouTube	65	70,9
WhatsApp	86,8	92
Twitter	49,6	63,4
Snapchat	43,6	67,5
Skype	51,3	49,6
Telegram	20,3	28,2
Pinterest	9,6	25,6
Vine	8,5	10,8
Ninguna	2,1	0,5

Iturria: geuk egina, online egindako inkestaren emaitzetatik abiapuntutzat hartuta.

Indarkeriaren esparruko esperientzia

Inkesta egin zaien pertsonen % 75,1ek indarkeria motaren bat jasan dute on-line haurtzaroan, eta % 47k indarkeria mota bat baino gehiago jasan dituzte. Horrek esan nahi du pertsona gehienek jasan dituztela indarkeria zibernetikoaren eraginak. Beste datu esanguratsu bat jasandako indarkeria moten kopurua da.


Inkestari erantzun ziotenek gehien jasandako indarkeria moten artean hauek daude: ziberjazarpena, online groominga edo ziberengainua, edo zenbait edukirekiko esposizioa baime-nik gabe.

Baimenik gabeko sextinga

Sextinga indarkeria gisa hartuta (baimenik gabekoa), % 3,74k soilik onartu zuten inoiz halakorik jasan zutela; % 2,49k behin edo bi aldiz, eta % 0,75ek 6 aldiz baino gehiagotan; ez dago generoaren aldetik alde nabarmenik esparru horretan. Lehen aldiz

halakorik gertatu zitzaienen batez besteko adina sextingaren praktikari dagokion adinaren parekoa da, 14 urte ingurukoa. Berriro ere, gehienez horrelako egoera bat eragin zuten pertsona neska-laguna edo mutil-laguna zutena izan zen.

8. grafikoa. Parte-hartzaileen ehunekoa, baimendu gabeko sextinga zenbat aldiz jasan duten kontuan hartuta.




Iturria: geuk egina, online egindako inkestan lortutako emaitzetatik abiatuta.

Sextortsioa

Lagineko pertsonetatik % 3,24k adierazi zuen inoiz **sexu-estortsioren** bat jasan zuela, batez beste 14-15 urterekin lehen aldiz. Berriro ere, sextortsioa bikotearen barneko indarkeria modu bat dela ikusiko dugu, es-

tortsioaren eragilea, gehienez, bikotekidea baitzen. Antzeko maiztasuna dagokie, dena den, pertsona ezezaguneri, lagunei eta eskolako kideei, delitu honen esparruan.

9. grafikoa. Sextortsioaren eragileen ehunekoak.




Iturria: geuk egina, online egindako inkestaren emaitzak abiapuntutzat hartuta.

Indarkeria bikote barnean edo bikote zenaren barnean

Bikote barneko edo bikote ohiaren barneko indarkeria aztertzeko, indarkeria eragin zuen pertsona biktimaren neska-laguna edo mutil-laguna zen hartuko dugu kontuan. Erasotzailea bikotekidea izan zen kasuei

erreparatuta, esparru horretan **sexu-es-tortzioa eta baimendu gabeko sextinga** nabarmentzen dira gehien, erreferentziatzat maiztasuna hartuta.

10. grafikoa. Baimendu gabeko sextingaren erantzule izan ziren pertsonak, ehunekotan.



Iturria: geuk egina, online egindako inkestan lortutako emaitzak abiapuntutzat hartuta.

Beraz, ildo horretatik, berriro ere indarkeria motak eta jokabide arriskutsuak erlaziona ditzakegu.

Sexu-izaerako edukiekiko mezuak igortzea sexu-estortzioaren aurrekari izan daiteke, edukiaren gaineko kontrola galtzen den unetik.


Ziberjazarpena

Inkestari erantzun diotenetik % 39,65ek ziberjazarpena jasan dute haurtzaroan, eta % 27,43k behin edo bi aldiz. Gainera, badirudi maizago jasan dutela horrelako indarkeria motaren bat neskek mutilek baino. **Inkestari erantzun dioten artean, neska gazteen % 46,7k jasan zuten ziberjazarpena,** eta mutil gazteen % 33,1ek. Lehen aldiz horre-

lako indarkeria jasan zuten pertsonen batez besteko adinari dagokionez, 8-9 urte bitartekoak ziren, nahiz eta gehienek 15 urterekin jasan zuten lehen aldiz.

Zibererasotzaileari dagokionez, inkestak erakusten digu **% 45,83 kasutan ikastetxeko lagun edo ikaskide bat izan zela,** eta % 15,83 kasutan, pertsona ezezagun bat.

11. grafikoa. Ziberjazarpena lehen aldiz jasan zuten biktimen kasuan zibererasotzaileei dagozkien ehunekoak.



Iturria: geuk egina, online egindako inkestan ateratako emaitzak abiapuntutzat hartuta.

Inkestari erantzun diotenen artetik % 4,24k sexu-izaerako ziberjazarpena jasan dute haurtzaroan edo nerabezaroan, batez beste 15 urte zituztela;


hala ere, bada ziberjazarpenarekiko alde nabarmen bat: egoera hori eragin zuen pertsona, gehienez, ezezaguna zen (bikotekide ohia dator gero).¹⁰⁰

Happy slappinga

Inkestan bildutako laginaren barnena, % 5,74k azaldu zuen indarkeria mota honen biktima izan zela inoiz. Batez beste, 14 urte inguru zituztela jasan zuten lehen aldiz, eta ziberjazarpenaren kasuan bezala, indarkeria

mota horren eragile nagusia, maiztasunaren ikuspegitik, lagun bat edo eskolako kide bat izan zen. Baina beste pertsona batzuk ere nabarmendu ziren erasotzaileen artean.

12.grafikoa. Happy slapping-a eragin zuten pertsonak.




Iturria: geuk egina, online egindako inkestan ateratako emaitzak abiapuntutzat hartuta.

Online groominga

Online groominga jasan du inkestari erantzun diotenen artetik % 21,45ek: behin edo birritan % 15ek. Gai horretaz egin diren zenbait azterlanek islatzen dute-

nez, abusuaren eragilea ezezaguna izan zen gehienez (% 49,18). Indarkeria mota hori, batez beste, 15 urte zituztela jasan zuten lehen aldiz.

13. grafikoa. Parte-hartzaileen banaketa, ziberengainua jasan zuten lehen aldian zuten adinaren arabera.




Iturria: geuk egina, online egindako inkestan ateratako emaitzak abiapuntutzat hartuta.

Sexu-izaerako edo indarkeriazko materialarekiko esposizioa, nahi gabe

Askotariko emaitzak eman ditu inkestak, baina, bat nabarmentzekotan, esango dugu nerabe edo haur zirela pertsona askok jasan zutela sexu-izaerako materialarekiko esposizioa. **Inkestari erantzun diotenetatik erdiek (% 51,12) inoiz jasan izan dute nahi**

gabe esposizio mota hori. % 28,18k behin edo birritan; % 8,23k hirutik bostera bitartean, eta % 14,71k sei aldiz baino gehiagotan. Batez beste, 15 urte zituzten esposizio hori gertatu zenean.

14. grafikoa. Nahi gabeko esposizioa jasan duten parte-hartzaileen ehunekoa.



Iturria: geuk egina, online egindako inkestan ateratako emaitzak abiapuntutzat hartuta.

Sexu-izaerako edo indarkeriazko materialarekiko esposizioa zerk eragin zuen ikertzen badugu, askotarikoak dira kausak, hala nola sailak edo filmak online ikustea edo jaistea, Interneteko jolasetan parte hartzea, edota sexuarekin loturirik ez duten irudiak edo ikus-entzunezko beste material batzuk jaistea.

Exhibizionismoari dagokionez, ikusi dugu % 23,19k jasan izan duela inoiz haur edo nerabe dela, eta % 16,21ek behin edo birritan. Gehienetan, material hori erakutsi zieten pertsonak ezezagunak ziren, nahiz eta bosten batek onartu zuen lagun batek edo eskolako kide batek erakutsi ziela.

Bizitako indarkeriazko esperientzien arteko erlazioak

Informazio hori guztia lortu ondoren, zer inguruabarrek eta indarkeria motak aurre-saten duten indarkeria zibernetikoa jasateko aukera aztertu nahi izan dugu.

Horretarako, erregresio-eredu logistikoa de-ritzon teknika aplikatu dugu horietako kasu bakoitzean. Mota guztietarako iragarleak ezarri ezin izan badira ere, indarkeria mota

desberdinetan arriskua modu esanguratsuan nola handitu daitekeen jakin ahal izan dugu (nahiz eta izan daitezkeen neurri txikiagoan eragin dezaketen beste batzuk ere).


Egiaztatu ahal izan dugu ezkerrean ageri diren indarkeria edo aldagai motak eskuin zutabean ageri den indarkeria mota ekar dezakeela..

VIOLENCIAS SUFRIDAS

VIOLENCIAS QUE PUEDEN DERIVARSE



Sexu-izerako ziberjazarpena



Online groominga



Ziberjazarpena



Happy slappinga

**VIOLENCIAS
SUFRIDAS**

**VIOLENCIAS QUE
PUEDEN DERIVARSE**



ziberjazarpena



Baimendu gabeko sextinga



Happy slappinga



**Interneten erabilerarako
arauak edo mugak**

VIOLENCIAS SUFRIDAS


VIOLENCIAS QUE PUEDEN DERIVARSE



Exhibizionismoa




Sexu-estortzioa



Sare sozialen kop.



Exhibizionismoa



Online groominga

VIOLENCIAS
SUFRIDAS

VIOLENCIAS QUE
PUEDEN DERIVARSE



VIOLENCIAS SUFRIDAS

VIOLENCIAS QUE PUEDEN DERIVARSE



Happy slapping




Ziberjazarpena



Sexu-izaerako ziberjazarpena




Exhibizionismoa



Online grooming



Sexu-estortsioa



9. IX. ZER NEURRI HARTU DIRA GURE HERRIALDEAN ONLINE INDARKERIAREN AURKA?

Askotariko adibideak eman daitezke estatuan nahiz autonomia-erkidegoetan online indarkeriaren aurka garatu diren politiken, txostenen eta kanpainen esparruan. Gainera, garrantzi handikoa da oinarri-oinarrikoak diren eragileek, hala nola erakunde publikoek, elkarteek eta fundazioek, ikaste-txeetan edo auzo edo udalerrietako programetan izan duten esku-hartzea. Hona hemen hartu diren zenbait neurri:

- **Diputatuen Kongresuko sare sozialen ikerketarako azpibatzordearen txostena.**¹⁰¹ Hezkuntzaren, araudiaren, poliziaren eta arloaren esparrurako gomendioak biltzen dira bertan, bai eta gai honetan adituak direnen aholkuak ere.
- **Datuak Babesteko Espainiako Agentzia (AEPD).** Datuen babeserako erakunde nagusi den neurrian, material ugari lantzen eta hedatzen ditu, Interneten argitaratuak horietako asko, eta autonomia-erkidegoetako hezkuntza-sailletara igortzen ditu.¹⁰²
- **Barne Ministerioa eta Ikaste-txeetan eta horien inguruneetan elkarrekin bizitzeko eta segurtasuna hobetzeko Gida Plana.**¹⁰³ Interneten eta teknologien erabilerarekin lotuta adingabeen dituzten arriskuei aurrea hartzeko xedea du.
- **Hezkuntza, Kultura eta Kirolaren Ministerioak Datuak Babesteko Espainiako Agentziarekin egindako hitzarmena.**¹⁰⁴

Haurrak eta nerabeak pribatutasunaz eta datuak babestu beharraz sentiberatzea eta arlo horretan prestatzea du xede.

- **PantallasAmigas.**¹⁰⁵ 2004an sortu zen, haur eta nerabeei zuzendutako proiektu eta hezkuntza-baliabideen bidez Interneteko arriskuei aurrea hartzeko, sarea modu autonomoan erabil dezaten haur eta nerabeak ahalduz. Espainiako eta beste herrialde batzuetako kolektibo ugari zuzentzen zaie.
- **INCIBE**¹⁰⁶ eta **Internet Segura for Kids (IS4K).**¹⁰⁷ Haurrak, horien familiak eta hezkuntzako profesionalak prestatzea, sentiberatzea eta aholkularitza ematea du xede.
- **INJUVE, Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizatearen Ministerioari atxikia.** Interneten eta sareen erabileraren eta pribatutasunaren esparruan eta materialen zabalkundearen, gazteak sentiberatzen eta prestatzen laguntzen du, beste erakunde batzuekin batera.
- **Polizia Nacionala.** online eta offline baliabideen bidez, sentiberatze-lana egiten du Polizia Nazionalak haur eta nerabeekin; horrez gain, unitate berezi bat ere badu, Interneteko krimen eta biktimizazioetan espezializatua.

Autonomia-erkidegoei dagokienez, informazio-iturri asko daude, hauek, adibidez:



1. Ziberjazarpenaren prebentziorako eta ikastetxeetan ziberlaguntzaileekin aritzeko proiektua.¹⁰⁸
2. Ziberjazarpenari aurre egiteko protokoloa.¹⁰⁹
3. Adingabeei digitalki lagun egiteko baliabideak, guraso eta irakasleei zuzendua.¹¹⁰
4. Interneten segurtasunez nabigatzeko askotariko baliabideen gunea, Kataluniako Generalitateko gazteei zuzendua.¹¹¹
5. Eskolako jazarpenaren aurkako baliabideei eta esku hartzeko protokoloari buruzko gida.¹¹²
6. Eskuliburua: «El buen uso de internet».¹¹³
7. Parekoen arteko jazarpenaren eta helduek adingabeei egindakoaren aurka jarduteko protokoloa.¹¹⁴

10. ZER IKASI DUGU?

Online indarkeriari buruz errealitate ugari bildu ahal izan ditugu lan honetan; gainera, indarkeriak hartzen dituen forma horiek etengabe elkarrekin nola lotzen diren ikusi dugu, eta, aldi berean, mundu fisikoko indarkeriarekin loturak dituela ere jabetu gara.

Ohartu gara zailtasunak ditugula teknologien eta Interneten erritmo bizkorra doitu eta egokitzeko, horiek guztiak arriskurik gabe eta arduraz erabiltzen lagunduko dituzten neurriekin.

Online indarkeria hazten ari da etengabe, eta milaka eta milaka haurri eragiten die, oso txikiak direnetik. Horrez gain, ikusi dugu haur eta nerabe neskek are arrisku handiagoa dutela indarkeria elektronikoa jasateko, eta horrek dakarzkien eraginak ere aztertu ditugu.

Ezin dugu saihestu edo zokoratu indarkeria zibernetikoa ordenagailua edo sakelako telefonoa itzaliz. Askoz konplexuagoa da errealitatea, eta offline indarkeriak bezainbesteko ondorio kaltegarriak ditu haur eta nerabeengan.

Haurrak ez dira sufrimendu horren erantzule, ez eta errudun ere, eta ahalduz irakatsi behar diegu, ikaskuntzaren bidez. Halaber, helduok ere ikasi egin behar dugu lehendabizi: adingabeek indarkeria jasan dezaten saihestu behar dugu, hezkuntzaren esparruan prebentzioa landuz, eta, azken erantzun gisa soilik, zuzenbide penalak eskaintzen dituen neurriak hartu behar ditugu.

Prebentzioaren bidez lantzen den hezkuntza horrek ez du hartu behar online indarkeria bereizita dagoen fenomeno bakartu gisa. Mundu fisikoan jasaten den indarkeriak mundu birtualean gertatzen dena aurrean

